

**2021
2022**

**Nafarroa Garaiko
Lanbide Heziketa**



*matrikula zaitez
euskaraz!*



LAB

2021-2022 ikasturtean **Lanbide Heziketan matrikula epea maiatzaren 17etik 26ra arte izango da.** Nafarroa Garaian 22 ikastetxe publiko eta 5 itundu daude izena emateko, egun euskaraz dagoen eskaintza oso urria izanik.

Ikasle euskaldunek euskaraz ikasteko eskubidea izan behar dute eta Lanbide Heziketan bereziki beraien hizkuntza eskubideak etengabe urratzen dira. horretaz gain, kontuan hartu behar da Lanbide Heziketa, euskararen erabilera normalizatzeko bidean sektore estrategiko bihurtzen ari dela. Ez du ezertarako balio izango lantegietan euskalduntzeko planak garatzea, lantegi horietan lanean arituko diren etorkizuneko langileek ez badute beren lanbiderako prestakuntza euskaraz egiteko aukerarik edo bertan ari diren langileen etengabeko prestakuntza erdaraz ematen jarraitzen bada.

Nafarroa Garaian Lanbide Heziketan euskaraz ikasteko eskubidea aldarrikatu behar dugu eta D ereduaren gutxiengo eskaintzaren aldeko bidea ireki.

Horregatik **lehenengo urratsa zure hautuan datza. Matrikulatzerakoan, jakinarazi euskaraz ikasi nahi duzula.**

- egun eskaintzen diren zikloak indartzeaz gain
- euskarazko ziklo berriak zabaltzen hasteko bidean, eskaerak handitzea faktore garrantzitsua baita. Gogoratu, egun gazteleraz soilik eskaintzen diren ziklo batean euskaraz izena ematen baduzu, azkenean gazteleraz bakarrik ateratzen bada ez duzu postua galduko.

Euskararen ofizialtasuna eta normalizaziorako bidean, denon betebeharra ezinbestekoa da.

Matrikula zaitez euskaraz!!!

Horrez aparte, kontuan izan ikasten duzunaren arabera lan egiteko maila ezberdinak lortuko dituzula. Lanbide Heziketaren ziklo bat ateraz gero, lana bilatzeko erraztasunak edukiko dituzu edo unibertsitaterako bidea ere irekita edukiko duzu zure formazioa handituz. Azken taulan ikus dezakezu Lanbide Kualifikazio Maila ezberdinak.

**Ikasi nahi duzun zikloa euskaraz eskaintzen
ez baldinbadute,
adieraz ezazu inskripzio-orrian!!!**

Euskaraz bizi, lan eta ikasi !!!

GOI MAILAKO LANBIDE HEZIKETA EUSKARAZ

	ZIKLOA	HERRIA/HIRIA	TXANDA	HIZKUNTZA
1	HAUR HEZKUNTZA	Iruñea (alde zaharra)	<u>Goizez eta arratsaldez</u>	EUSKARA
2	GIZARTE INTEGRAZIOA		<u>Goizez eta arratsaldez</u>	EUSKARA
3	AUTOMATIZAZIOA ETA ROBOTIKA INDUSTRIALA	Iruñea (Donibane)	<u>Goizez</u>	EUSKARA
4	ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK	Iruñea (Donapea)	<u>Goizez</u>	EUSKARA
5	ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK	Elizondo	<u>Goizez</u>	Euskara/ Frantsesa
6	GIZARTE ETA KIROL ANIMAZIOA ETA IRAKASKUNTZA	Irunberri	<u>Goizez</u>	EUSKARA
7	EGOKITZE FISIKOA	Burlata	<u>Goizez</u>	Euskara/ Inglesa
8	MEKATRONIKA INDUSTRIALA	Bera	<u>Goizez</u>	EUSKARA

ERTAIN MAILAKO LANBIDE HEZIKETA EUSKARAZ

	ZIKLOA	HERRIA/HIRIA	TXANDA
1	ERIZAINZAKO ZAINKETA LAGUNGARRIAK	Iruñea (ESTNA)	<u>Goizez</u>
2	IBILGAILU AUTOMOBILEN ELEKTROMEKANIKA	Iruñea (Donapea)	<u>Goizez</u>
3	ADMINISTRAZIO KUDEAKETA		<u>Goizez</u>
4	INSTALAZIO ELEKTRIKOAK ETA AUTOMATIKOAK	Iruñea (Donibane)	<u>Goizez</u>
5	MEKANIZAZIOA	Iruñea (Virgen del Camino)	<u>Goizez eta arratsaldez</u>
6	NEKAZARITZA EKOLOGIKOKO EKOIZPENA	Iruñea (Nekazaritza eskola)	<u>Goizez</u>
7	SISTEMA MIKROINFORMATIKOAK ETA SAREAK	Iruñea (María Sanz)	<u>Goizez</u>
8	MANTENTZE-LAN ELEKTROMEKANIKOA	Bera	<u>Goizez</u>
9	MEDEKOTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONEN LAGUNTZA	Altsasu	<u>Goizez</u>
10	SISTEMA MIKROINFORMATIKOAK ETA SAREAK		<u>Goizez</u>
11	ERIZAINZAKO ZAINKETA LAGUNGARRIAK	Elizondo	<u>Goizez</u>
12	NATURA INGURUNEN ETA AISIALDIKO GIDARIA		<u>Goizez</u>
13	ADMINISTRAZIO KUDEAKETA		<u>Goizez</u>
14	MEKANIZAZIOA		<u>Goizez</u>

OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA EUSKARAZ

	ZIKLOA	HERRIA/HIRIA	TXANDA
1	ADMINISTRAZIO ZERBITZUAK	Iruñea (Donapea)	<u>Goizez</u>
2	ELEMENTU METALIKOEN FABRIKAZIOA	Elizondo	<u>Goizez</u>
3	BULEGOKO INFORMATIKA		<u>Goizez</u>

EKE	LKKN	AKREDITAZIOA
1. MAILA	1. MAILA	Oinarrizko LH
2. MAILA		
3. MAILA	2. MAILA	Ertain Mailako LH Batxilergoa
4. MAILA		
5. MAILA	3. MAILA	Goi Mailako LH
6. MAILA	4. MAILA	Unibertsitateko Gradua
7. MAILA	5. MAILA	Unibertsitateko Masterra
8. MAILA	6. MAILA	Unibertsitateko Doktoretza

LKKN Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionala/ CNCP Catálogo Nacional de Cualificaciones Profesionales
EKE Europako Kualifikazioen Esparrua/ MEC Marco Europeo de Cualificaciones